



AMEZKETAKO UDALA



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

EUSKERAREN ERABILERAREN AMEZKETAKO DIAGNOSTIKOA

1. Herriko datu soziolinguistikoen bilakaera

	1991	2001	2011
EZAGUTZA	%97,3	%95,7	%91,9
LEHEN HIZKUNTZA	%96,8	%92,7	%86,1
ETXEKO HIZKUNTZA	%94,8	%91,1	%81,3

	2017
KALE ERABILERA	%87,40
ADIN TALDEEN ARABERA	
Haurrak (2-14)	%85,30
Gazteak (15-24)	%96,70
Helduak (25-64)	%85,60
Adinekoak (64tik gora)	%93,70

2. Eusalgintza edo euskara eragileak

Eskualdeko euskara taldea Galtzaundi da. Hamarkada luzeetako ibilbidea du, eta eskualde osorako euskara talde izateko sortu bazen ere, Tolosari begira aritu da lanean. Gaur egun, eskualdetze prozesuan sartuta dabil, eta UEMAekin batera aurkezpen saioak ematen dabil Tolosaldeko herri guztietan.

Amezketan izan badira euskaltzaleak, ekintza puntualak antolatze beldu direnak (euskara eskolak etorriberrientzat, hizkuntz eskubideei buruzko hitzaldiak, tailerrak...), baina ez dute inoiz sortu talde egonkor eta egituraturik izan. Ekintza batzuk antolatu eta helburua betetakoan desegin egin dira taldeak.

3. Eragileak eta erreferenteak

Kultur arloan egonezina duten herritarrek Kultur Astea antolatzen dute, eta Udalak finantzatu. Jaiak ere herritarrek antolatzen dituzte, eta Udalak finantzatu.

Horrez gain, garai batean Amezketao Gazteak egituratuta zeuden, eta oraintxe 18-20 urteren bueltako gazteak egituratze prozesu batean murgilduta daude.

Eragile horiek euskaraz funtzionatzen dute.



AMEZKETAKO UDALA



4. Eskualderatzea

Galtzaundiz aparte, eskualdeko udalerri guztiak bere baitan hartzen dituen erakunde bakarra Tolosaldea Garatzen da, garapen agentzia. Garapen sozioekonomikoa eta soziokulturala lantzeko helburuz sortu bazen ere, garapen sozioekonomikoa baino ez du lantzen.

2018ko hasieran, Galtzaundik Tolosaldea Garatzenetik bideratuta Tolosaldeko Mahaia egituratu nahi du, eskualde guztiko eragileek bertan parte hartzeko eta euskararen normalizaziorako plan pilotua bertatik bideratzeko. Plan horren baitan Tolosaldea azpieskualdeka egituratu nahi dute: bost azpieskualde egongo dira, eta Alegialdea izango da horietako bat. Alegia eta inguruko herriak sartuko dira bertan: Altzo, Orendain, Baliarrain, Ikaztegieta, Orendain, Amezketa...

5. Mugikortasuna

Hainbat auzotan banaturik dago, eta garrantzitsuenak lau dira:

- Ugarte (herri sarreran kokatuta dago, Alegialdetik joanda).
- San Bartolome edo erdigunea (Plazaren inguru guztia).
- Ergoiena auzoa (elizaren inguruan biltzen diren eraikuntzek osatua).
- San Martin (Amezketatik 2 Km-ra kokatuta dagoen zelaia, bisitagunea).

Amezketakoen erreferentziazko herriak Alegia da. Bertara joaten dira erosketak egitera, batzuetan anbulatoriora, ikasketak egitera... Ez dago jakiterik zenbateraino eragiten duten Alegialdeko herri txikiek Alegian, ezta Alegiak zenbateraino eragiten duen herrietan, baina argi dago Alegia dela azpieskualdeko herririk erdaldunena eta azpieskualdeko herri txikiak euskaldunagoak direla.

Eskualdeko beste erreferentzia nagusia Tolosa da. Beste neurri batean, Alegia-Alegialdean gertatzen den gauza bera gertatzen da Tolosa-Tolosaldea mugikortasun ardatzean, baina ez dago zehazki jakiterik zenbateko eragina duen mugikortasun horrek.

Bestalde, gero eta gehiago dira lanagatik eskualdetik kanpora joaten direnak, bai Goierri aldera, bai Donostialdera.

Turismoari dagokionez, bi eskaintza nagusi dituzte: batetik, Fernando Amezketarraren txokoen ibilbidea, eta bestetik, mendi ibilbideak. Bi ibilbide mota horiek zeharka ukitzen dute herrigunea, eta ez dute eragin handirik.

Ikasturte honetan Hizneten dabilen ikasle batek amezketarren mugikortsunak hizkuntz ohituretan nola eragiten duen aztertzeko asmoa du.

6. Udala

Amezketako Udala 2009an sartu zen UEMAn, eta UEMAn sartu berrian ere oso maila altuan zegoen.



AMEZKETAKO UDALA



7. Euskalduntze-alfabetatzea

Euskalduntze-alfabetatzeko ikasleen gaineko datuak:

IKASTURTEA	2015-16	2016-17	2017-18
IKASLEAK (Parentesi artean atzerritarrak)	9 (5)	12 (9)	13 (3)

Udalak diru-laguntzak ematen ditu, eta azken urteetan taldeak sortu dira herrian. Gaur egun, Tolosako Udal Euskaltegiko irakasle bat joaten da bertara. Aurretik, Udalak Elduaieen akademiarekin zeukan tratua ikasle talde bati eskolak emateko.

8. Etorri berriak

Erroldatutako herritarrak 941 dira, eta hona hemen atzerritarren banaketa:

a) Europar Batasunekoak ez diren pertsonak denera 36 dira, %3,82. Banaketa:

Nazionalitatea	Pertsona kopurua	%	Gizon kopurua	Adina	Emakume kopurua	Adina
Honduras	2	%0,21			2	33
Nikaragua	9	%0,95	1	36	8	30
Ekuador	2	%0,21	2	51		
Rep. Dominikana	1	%0,10			1	31
Thailandia	1	%0,10			1	43
Maroko	8	%0,85	1	50	7	25
Aljeria*	7	%0,74	2	40	5	40
Mauritania*	6	%0,63	2	40	4	40

***13 biztanle horiek Saharakoak dira.**

b) Europar Batasunekoak diren pertsonak denera 6 dira, %0,63. Banaketa:

Nazionalitatea	Pertsona kopurua	%	Gizon kopurua	Adina	Emakume kopurua	Adina
Frantzia	1	%0,10			1	54
Bulgaria	4	%0,42	1	39	3	41
Austria	1	%0,10	1	51		



AMEZKETAKO UDALA



9. Arlo sozioekonomikoa

Ostalaritza-merkataritzako establezimenduak 16 dira. Oro har, guneak euskaldunak dira. Arazoak sortu izan dira botikan.

Lan munduari dagokionez, herrigunean eragin handia du Aralar Papeleriak. Langile ugari ditu, eta langileak lantegitik atera eta herrigunean ibiltzen direnean (bazkaltzera joateko edo bazkaltzetik bueltan) horiek dira kalean ibiltzen diren bakarrak. Udalak Aralarrekin duen hartu-emana euskara hutsez da, eta hala erabaki zela jakinarazi zion Udalak. Aralar Papertegiaren eragina handia da herrian. 1979a arte eskola pribatua zuen. Gaur egun, lokal hori eskolaren parte da, Hezkuntza Sailaren, Udalaren eta Papertegiaren arteko hitzarmen bati esker.

Ez dago auto-eskolarik Amezketan.

Kutxabanke sukurtsal bat du herrian, astelehenetan zabaltzen dena.

9. Aisialdi eskaintza (aisia, kirola eta kultura)

Aisialdi eskaintza Udaletik bideratzen da: batetik, kirol ikastaroak daude, eta, bestetik, kultur arloan herritarrek antolatzen dituzten ekintzak. Ekintzak euskaraz dira.

10. Irakaskuntza

Amezketan ikastetxe bakarra dago: Zumadi eskola. Lehen Hezkuntzako 6. maila arteko ikasturteak egiten dituzte bertan, eta gero ia guztiak Alegiako Aralar institutura joaten dira. Zumadi eskola publikoa 1979an sortu zen Amezketa herrian zeuden “escuela nacional” delakoaren, ikastolaren eta Papelera Aralar-ek zuen eskola pribatuaren bateratze prozesuaren ondoren. Orduan eta herriko errealitate soziolinguistikoa kontuan hartuz “D eredua” ezarri zuten bertan. Hasiera batean Amezketako hurrez gain, Abaltzisketakoak eta Bedaiokoak ere gure eskolara etortzen ziren. 2005an Abaltzisketak bere eskola sortu zuen eta geroztik haur abaltzisketarrak bertara joaten dira.

10. Beste administrazioen zerbitzuak (Osasuna, epaitegia...)

Bai mediku eta baita erizain zerbitzuak ere, egunero eskaintzen dira, Amezketan.

Ordua, edozertarako hartu behar da (analisiak, kurak, etxeetako bisitak, errezetak...) telefonora deituta.

Bake epaitegia udaletxean bertan dago, eta azken urteetan ez da arazorik sortu, atzerriko kontsuladoetarako paper batzuekin izan ezik.



AMEZKETAKO UDALA



11. Hedabideak

Eskualdean, euskarazko hedabide hauek daude:

- Ataria: paperezko egunkaria (Berriarekin batera banatzen da), irratia eta webgunea.
- 28 kanala: Telebista


Aurreko legealdian, biek bat egiteko egitasmo bat izan zen, baina ez zen helburua lortu. Gaur egun, baliabide tekniko batzuk partekatzen dituzte (antena...), eta litekeena da etorkizunean bat egiteko beste planteamenduren bat sortzea.

Eskualdeko hedabideen kontsumoa aztertzeke, eta datu xehatuak lortzeko, ikerketa interesgarria egin du Galtzaundiko Garikoitz Goikoetxeak (2018ko Hausnartu Sariak - 3. saria) Euskarazko hedabideen kontsumoa Tolosaldean. Eskualdeko hedabideen kontsumoan eragiteko puntuen artean bada bat oso esanguratsua (eta agian heldu beharrekoa): eskualdeko tabernetan euskarazko idatzizko hedabideen eskaintza kontsumo tasatik beherakoa da.

12. Bestelakoak

Amezketako herritar kopuruaren bilakaera:

Biztanleriaren bilakaera (2000=100) | Amezketa eta bere testuingurua, 2000-2016





AMEZKETAKO UDALA



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA

1. taula: BIZTANLERIA BOLUMENA. AMEZKETA ETA BERE TESTUINGURUA, 2000-2016					
	AMEZKETA	Tolosaldeako landa- eremua	Tolosaldea	Gipuzkoako landa- eremua	Gipuzkoa
2000	989	14.516	44.553	62.058	679.370
2004	980	15.376	45.380	63.605	686.513
2008	983	16.414	46.649	67.253	701.072
2012	976	16.980	48.099	69.310	712.097
2016	938	17.190	48.893	70.187	717.832
Hazkunde-tasa krisialdian					
2008/12	-0,7	3,4	3,1	3,1	1,6
2012/16	-3,9	1,2	1,7	1,3	0,8

Iturria: EUSTAT eta INE. Udak errolatu.

Activar Window
Mostrar Configuración